

EUSKAL MEZA, APIRILAK 4 2021
PAZKO IGANDEA/EASTER SUNDAY (A,B,C)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ◎ Amen. Agurra † Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin. ◎ Eta zure espirituekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ◎ Amen. Greeting † Grace to you and peace from God our Father and the Lord Jesus Christ. ◎ And with your spirit.</p>
--	---

SUAREN BEDEINKAZIOA-BLESSING OF THE FIRE

<p>Senide maiteok, Gau santu honetan, Kristo gure Jauna, hilen artetik biztu denez gero, Elizak, Mundo zabalean zehar zabaldurik dauden bere Seme-alaba guziei, dei egiten digu, elkarrekin bildurik eta otoitzean egoteko. Horrela, Jaunaren Hitza entzunez, eta sakramentuak elkarrekin hartuz, Haren Pazkoa ospatzen badugu, itxaropen osoa dugu, Berarekin batean heriotza menperatu ahal izango dugula, eta Berarekin batean, biziko garela, betirako Jaungoikoarekin.</p> <p>Egin dezagun otoitz. Jaungoiko gure Jauna, zure Semea munduko argia Denez gero, Beraren bidez eman diguzu gizon Guziei zure argiaren distira. Bedeinka † ezazu su berri hau, eta egiguzu, Pazko-jai hauen ospakizunaren bitartez, arima garbiz, betiko zeruko argiaren jaietara heldu gaitzela. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. ◎ Amen.</p>	<p>Dear brethren (brothers and sisters), on this most sacred night, in which our Lord Jesus Christ passed over from death to life, the Church calls upon her sons and daughters, scattered throughout the world, to come together to watch and pray. -If we keep the memorial of the Lord's paschal solemnity in this way, listening to his word and celebrating his mysteries, then we shall have the sure hope of sharing his triumph over death and living with him in God.</p> <p>Let us pray. O God, who through your Son bestowed upon the faithful the fire of your glory, sanctify † this new fire, we pray, and grant that, by these paschal celebrations, we may be so inflamed with heavenly desires, that with minds made pure we may attain festivities of unending splendor. Through Christ our Lord. ◎ Amen.</p>
---	---

SARRERAKO ABESTIA-ENTRANCE SONG

<p>Piztu da Kristo (244)</p> <p>Piztu da Kristo, Alleluia ! Guregan dago, Alleluia !</p> <p>1. Jainkoak baitu gaur Kristo piztu, Alleluia !</p>	<p>Christ is Risen</p> <p>Christ is Risen, Alleluia! He is with us, Alleluia.</p> <p>1. God has today Christ Risen, Alleluia!</p>
---	---

<p>Bere indarraraz piztuko gaitu, Alleluia ! Alleluia !</p> <p>2. Gure gorputza baitu egoitza, Alleluia ! Orai berekin gaitu bat egin. Alleluia ! Alleluia !</p> <p>3. Gorputza dugu Kristoren menbro, Alleluia ! Erosi gaitu zinez kario, Alleluia, Alleluia !</p> <p>4. Jaunari kanta : Goresmen eman, Alleluia ! Bai bihotz eta bai gorputzean, Alleluia, Alleluia !</p>	<p>He will rise us with his power, Alleluia, Alleluia!</p> <p>2. Our body is his dwelling place, Alleluia! Now he has made us one with Him, Alleluia, Alleluia!</p> <p>3. Our body is Christ's member, Alleluia! He has bought us dearly, Alleluia, Alleluia!</p> <p>4. Sing to the Lord, praise Him, Alleluia! With all your hearts and bodies, Alleluia, Alleluia!</p>
---	--

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna. ⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki. ⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna. ⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara. ⊙ Amen.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters) let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy.</p> <p>⊙ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.</p> <p>⊙ Amen.</p>
---	---

AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.</p>
--	--

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

† Egin dezagun otoitz

+ Jainko Jauna, egun honetan heriotza garaitu duen zure Semearen bidez betiko biziaren ateak zabaldu dizkiguzu; iguzu, guere Jaunaren piztuera ospatzen dugunok, espiritu Santuak berriturik, gure piztueraren itxaropenean bii gaitzela. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi bait da gizaldi ta gizaldietan.

☉ Amen.

† Let us Pray

O God, who on this day, through your Only Begotten Son, have conquered death and unlocked for us the path to eternity, grant, we pray, that we who keep the solemnity of the Lord's Resurrection may, through the renewal brought by your Spirit, rise up in the light of life.

Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, God, for ever and ever.

☉ Amen.

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD

LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING

Apostoluen Eginetatik/ Acts 10:34a, 37-43

Apostoluen Eginetatik

34 Orduan, honela mintzatu zen Pedro: 37 Badakizue, Galilean hasi eta Judea osoan, Joanek predikatu eta bataiatu ondoren, gertatu zena, 38 Nazaretoko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaz eta indarrez gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruaren menpe zeuden guztiak sendatzen igaro zuen bere bizitza, Jainkoa berekin baitzuen. 39 Eta gu gara hark juduen lurralde osoan eta Jerusalemen egindako guztien lekuko. Jesus hau egur batetik zintzilik hil zuten; 40 baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion, 41 ez herriko guztiei, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik, guri alegia, hura hildakoen artetik piztu ondoren berarekin jan eta edan dugunoi. 42 Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeko, bera dela Jainkoak bizien eta hildakoen epaile ezarri duena aitortuz. 43 Profeta guztiek testigantza hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiek bekatuen barkamena hartuko dutela beraren bitartez» .

☐ Jaunak esana!

☉ Eskerrak zuri Jauna!

From the Acts of the Apostles

Peter proceeded to speak and said: "You know what has happened all over Judea, beginning in Galilee after the baptism that John preached, how God anointed Jesus of Nazareth with the Holy Spirit and power. He went about doing good and healing all those oppressed by the devil, for God was with him. We are witnesses of all that he did both in the country of the Jews and in Jerusalem. They put him to death by hanging him on a tree. This man God raised on the third day and granted that he be visible, not to all the people, but to us, the witnesses chosen by God in advance, who ate and drank with him after he rose from the dead. He commissioned us to preach to the people and testify that he is the one appointed by God as judge of the living and the dead. To him all the prophets bear witness, that everyone who believes in him will receive forgiveness of sins through his name."

☐ The Word of the Lord!

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 118:2-4, 13-15, 22-24

<p>R. Hauxe da Jaunaren ekintza-eguna: alai gaitezen eta poztu!</p> <p>Goretsazue Jauna, ona baita, haren maitasuna betikoa baita. Esan bezate israeldarrek: «Haren maitasuna betikoa». R.</p> <p>Jaunaren eskua bikain, Jaunaren eskua garaile». Ez, ez naiz hilko, biziko baino, Jaunaren egintzak kontatzeko. R.</p> <p>Etxegileek bazterturiko harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri. R.</p>	<p>R. This is the day the Lord has made; let us rejoice and be glad.</p> <p>Give thanks to the LORD, for he is good, for his mercy endures forever. Let the house of Israel say, “His mercy endures forever.” R.</p> <p>“The right hand of the LORD has struck with power; the right hand of the LORD is exalted. I shall not die, but live, and declare the works of the LORD.” R.</p> <p>The stone which the builders rejected has become the cornerstone. By the LORD has this been done; it is wonderful in our eyes. R.</p>
---	--

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

Kolosarren Eskutitza/Col 3:1-4

<p>Kolosarrei egindako eskutitzetik</p> <p>Senideok, 1 Beraz, Kristorekin piztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo Jainkoaren eskuinaldean eserita. 2 Jarri zeuen gogoia goiko gauzetan, ez lurkeoetan, 3 hilik baitzaudete, eta egiazko zuen bizia Kristorekin dago Jainkoarengan gordea. 4 Kristo, zuen bizia, agertuko denean, orduan harekin aintzatsu agertuko zarete zuek ere.</p> <p><input type="checkbox"/> Jaunak esana! <input checked="" type="checkbox"/> Eskerrak zuri Jauna!</p>	<p>From the Letter to the Colossians</p> <p>Brothers and sisters: If then you were raised with Christ, seek what is above, where Christ is seated at the right hand of God. Think of what is above, not of what is on earth. For you have died, and your life is hidden with Christ in God. When Christ your life appears, then you too will appear with him in glory.</p> <p><input type="checkbox"/> The Word of the Lord! <input checked="" type="checkbox"/> Thanks be to God!</p>
---	---

ALELUIA-ALLELUIA

<p>R. Aleluia, aleluia. Kristo, gure Pazko bildotsa hila izan da; egin dezagun, beraz, festa pozik Jaunarengan! R. Aleluia, aleluia.</p>	<p>R. Alleluia, alleluia. Christ, our paschal lamb, has been sacrificed; let us then feast with joy in the Lord. R. Alleluia, alleluia.</p>
--	---

EBANJELIOA-GOSPEL

<p>†Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin. †Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik ⊙ Aintza Zuri, Jauna. †Jaunak esana. ⊙ Eskerrak Zuri, Jauna</p>	<p>† The Lord be with you ⊙ And with your spirit † A Reading from the Holy Gospel according to N ⊙ Glory to you, O Lord. † The Gospel of the Lord. ⊙ Praise to you, Lord Jesus Christ.</p>
---	--

Ebanjelioa San Joanen Liburutik/John 20:1-9

<p>1 Asteko lehen egunean Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. 2 Orduan, Simon Pedroengana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non ipini duten». 3 Irten ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea eta hilobirantz jo zuten. 4 Biak batera zihoazen korrika, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. 5 Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurtean zeudela ikusi zuen, baina ez zen sartu. 6 Irtsi zen haren atzetik Simon Pedro eta sartu zen hilobira. Oihal-zerrendak lurtean ikusi zituen, 7 baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; baina hau ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean aparte bildua baizik. 8 Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. 9 Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hildakoen artetik piztu behar zuela, alegia.</p> <p>□ Jaunak esana! ⊙ Eskerrak Zuri, Jauna!</p>	<p>On the first day of the week, Mary of Magdala came to the tomb early in the morning, while it was still dark, and saw the stone removed from the tomb. So she ran and went to Simon Peter and to the other disciple whom Jesus loved, and told them, “They have taken the Lord from the tomb, and we don’t know where they put him.” So Peter and the other disciple went out and came to the tomb. They both ran, but the other disciple ran faster than Peter and arrived at the tomb first; he bent down and saw the burial cloths there, but did not go in. When Simon Peter arrived after him, he went into the tomb and saw the burial cloths there, and the cloth that had covered his head, not with the burial cloths but rolled up in a separate place. Then the other disciple also went in, the one who had arrived at the tomb first, and he saw and believed. For they did not yet understand the Scripture that he had to rise from the dead.</p> <p>□ The Word of the Lord! ⊙ Praise to you, Lord Jesus Christ.</p>
--	---

HOMILIA-HOMILY

RENEWAL OF THE PROMISES OF BAPTISM

Dear brethren, through the Paschal Mystery we have been buried with Christ in Baptism, that we may walk with him in newness of life. And so, let us renew the promises of Holy Baptism, which we once renounced Satan and his works and promised to serve God in the holy Catholic Church.

And so, I ask you:

V. Do you renounce sin, so as to live in the freedom of the children of God?

R. I do.

V. Do you renounce the lure of evil, so that sin may have no mastery over you?
R. I do.

V. Do you renounce Satan, the author and prince of sin?
R. I do.

V. Do you believe in God, the Father Almighty, Creator of heaven and earth?
R. I do.

V. Do you believe in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was born of the Virgin Mary, suffered death and was buried, rose again from the dead and is seated at the right hand of the Father?
R. I do.

V. Do you believe in the Holy Spirit, the holy Catholic church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting?
R. I do.

V. And may almighty God, the Father of our Lord Jesus Christ, who has given us new birth by water and the Holy Spirit and bestowed on us forgiveness of our sins, keep us by his grace, in Christ Jesus our Lord, for eternal life.
R. Amen.

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: Let us place our needs before God our Father, rejoicing because Christ has triumphed over death and entered into glory.

1. For our vulnerable populations: God, protect our elderly and those suffering from chronic disease. Provide for the poor, especially the uninsured. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. For our local, state, and federal governments: God, help our elected officials as they allocate the necessary resources for combatting this pandemic. Help them to provide more tests. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. For our scientific community, leading the charge to understand the disease and communicate its gravity: God, give them knowledge, wisdom, and a persuasive voice. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
4. For the homeless, unable to practice the protocols of social distancing in the shelter system: Protect them from disease and provide isolation shelters in every city. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
5. That vaccines may be provided in justice and fairness to all, especially the most vulnerable populations and poor countries. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
6. For families with young children at home for the foreseeable future: God, help mothers and fathers to partner together creatively for the care and flourishing of their children. For single mothers and fathers, grow their networks of support. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

7. For frontline health care workers, we thank you for their vocational call to serve us. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

+ Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Give our beloved dead the reward of their labors and grant us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY

<p>Ogia ta ardoa, eskaintzen dizugu, Ogi ta ardo horiekin, eskaintzen gera gu</p> <p>Ogia dugu Jauna, hemen beharrezko Baina zu gabe ezin bizi, ene Jainko.</p> <p>Ardoa dugu, Jauna, hemen beharrezko Baina zu gabe ezin bizi ene Jainko.</p>	<p>Bread and wine, we offer You, With this bread and wine, we offer our very selves.</p> <p>Bread we need here, oh Lord, Since without You, we can't live.</p> <p>Wine, we need here, oh Lord, Since without You, we can't live.</p>
---	---

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
--	---

OPARIGAIEN GAINEN OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Pazko pozez beterik eskaintzen dizugu, Jauna, opari hau; beronek sortzen bait du harrigarriro zure Eliza eta janaritzen.</p> <p>Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Exultant with paschal gladness, O Lord, we offer the sacrifice by which your Church is wondrously reborn and nourished.</p> <p>Through Christ our Lord.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	---

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin</p> <p>⊙ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Gora bihotzak.</p> <p>⊙ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</p> <p>⊙ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Bai egoki da eta zuzen non nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz saindu, Jainko guztiahaldun betierekoari, Jesu-Kristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>Berak, gure artean sortuz, gizon-emakume berri egin gaitu; kurutzean hilez, gure bekatuak ezeztatu; hilen artetik piztuz, betiereko bizia eman digu, eta Zuregana igoz, Aita guztiz saindua, zeruko atea zabaldu.</p> <p>Horra zergatik, aingeru eta sainduekin batean, gelditu gabe kantatzen dizugu goresmen hau.</p> <p>⊙ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>⊙ And with your spirit.</p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>⊙ We lift them up to the Lord.</p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>⊙ It is right and just.</p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, at all times to acclaim you, O Lord, but (on this night / on this day / in this time) above all to laud you yet more gloriously, when Christ our Passover has been sacrificed.</p> <p>For he is the true Lamb who has taken away the sins of the world; by dying he has destroyed our death, and by rising, restored our life.</p> <p>Therefore, overcome with paschal joy, every land, every people exult in your praise and even the heavenly Powers, with the angelic hosts, sing together the unending hymn of your glory, as they acclaim:</p> <p>⊙ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</p>
--	---

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

<p>† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezen.</p> <p>† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:</p> <p style="text-align: center;">HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-TA, ZUENTZAT EMANGO DENA</p> <p>† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:</p> <p style="text-align: center;">HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN</p>	<p>† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ.</p> <p>† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:</p> <p style="text-align: center;">TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT, FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU</p> <p>† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:</p> <p style="text-align: center;">TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK FROM IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF MY BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND</p>
---	---

**KALIZA DA-TA, ITUN BERRI ETA
BETIKOAREN ODOLA, ZUENTZAT ETA
GUZTIENTZAT BEKATUAK BARKATZEKO
ISURIKO DENA. EGIZUE HAU NIRE
OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratzu, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiarekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

=====

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean goretz zaitzagan, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† **Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan**

☉ **Amen.**

**ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† The mystery of faith.

☉ **We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.**

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

=====

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ **Amen.**

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

<p>† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:</p> <p>†⊙ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.</p> <p>Emaiguzu gaur egun hontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.</p> <p>†Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela</p> <p>⊙ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.</p>	<p>† At the Savior’s command and formed by divine teaching, we dare to say:</p> <p>†⊙ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.</p> <p>Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.</p> <p>† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>⊙ For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
---	--

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

<p>† Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiuzu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>⊙ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p> <p>⊙ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Emaiozue bakea elkarri.</p> <p>⊙ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.</p> <p>Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.</p> <p>Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaioguz bakea.</p> <p>† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</p> <p>⊙ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>⊙ Amen.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>⊙ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>⊙ And with your spirit.</p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p> <p>⊙ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.</p> <p>Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>⊙ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>⊙ Amen.</p>
---	---

<p>JESUS MUNDUKO ARGIA Jesus zinezko egia. Jesus betiko bizia.</p> <p>1. Jesus Jainko gizona Zuri gure bizia hartu gure Jaun ona, gu geraden guztia. 2. Gure bihotz barruan biztu zure argia gaitezen gu munduan argi Jainkoz betea.</p>	<p>Jesus is the light of the world, Jesus is the absolute truth Jesus is the eternal life.</p> <p>1. Jesus, God and man, to you our lives Receive, our good Lord, all what we are. 2. Kindle your Light inside our heart, So, we become God's light in the world.</p>
--	--

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Jainko Aita, zaindu ezazu beti zure Eliza maitasun handiz, pazko sakramentu hauen bidez beti berriturik, piztueraren argira iritxi dadin. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>+ Look upon your Church, O God, with unfailing love and favor, so that, renewed by the paschal mysteries, she may come to the glory of the resurrection. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
---	--

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ⊙ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. Aleluia, Aleluia ⊙ Eskerrak Jainkoari. Aleluia, Aleluia.</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ⊙ Amen. † Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia. ⊙ Thanks be to God. Alleluia, Alleluia.</p>
---	---

FINAL SONG/AZKEN KANTA

<p>Agur Jesusen Ama</p> <p>Agur, Jesusen ama, Birjina maitea, agur, itxasoko izar dizdiratzailea. Agur, zeruko eguzki pozkidaz betea. Agur, bekatarien, kaia ta estalpea. Agur, bekatarien, kaia ta estalpea.</p> <p>Baina Zugandik alde, bihotzak ezin du, Zuregana dijoa, Zugan bizi nahi du. Birjin berdingabea,</p>	<p>Hail, Mother of Jesus</p> <p>Hail, Mother of Jesus, Dear Virgin, Goodbye, twinkling Star of the Sea. Goodbye Joyful Sun of Heaven. Goodbye, haven and porch Of sinners. Goodbye, haven and porch Of sinners.</p> <p>From Thee far away, Our heart cannot stand, It (our hearts) goes toward Thee. We want to live with You. Uncomparable Virgin,</p>
---	---

onetsi nazazu: Agur, Ama nerea, Agur, agur, agur. Agur, Ama nerea, Agur, agur, agur.	Bless me; Goodbye, my mother, Goodbye, goodbye, goodbye. Goodbye, my mother, Goodbye, goodbye, goodbye.
--	---

Nazko Zorion!! Happy Easter!




CECIL JAYO 1925-2021



Born in Aulestia. He was the youngest of four boys. His mother passed away when he was six years old, and shortly thereafter, his father came to Idaho to work. Cecil and his brothers were raised by two aunts on their farm. In 1940, Cecil (15) and his brother, Juan, came to America and were brought up by the family Oñaederra-Lizaso. At 18, Cecil was drafted by the US Army. 1966 married to Gurutzne Beristain, and had a son, David. Very active in the Basque community, Saint John Cathedral, VA volunteer.

Goian Begol/May He Rest in Peace

BENEDICTO GOITLANDIA 1933-2021



Born in Zubero, just outside Aulestia Bizkaia. He was the 3 child of a family of 7 siblings –having 3 sisters and 3 brothers. Came to the US in 1952 and worked in Sheep Company and did very short period in logging and mining before working the rest of his life as a professional butcher. He married Tomasa Erdoisa in 1960 and they had two sons, David and Ramon. Benny is known by hundreds of people in communities throughout the western United States through his participation in weightlifting competitions and exhibitions from 1957 through the late 1980s.

Goian Begol/May He Rest in Peace

SABIN LANDALUCE, JR. 1949-2021



Born in Mungia, Bizkaia. In 1957 came to Boise with his mother and younger brother (Luis), joining their father. Great athlete. Sabin is survived by his wife Noni, his brothers Luis (Joy) and Josu (Royce); sons Mark, Tom (Lynette) and Ric.

Goian Begol/May He Rest in Peace

BAZKO EGUNA B

Lehen irakurgaia

(Apostoluak Jesusen Piztearen lekuko)

Apostoluen Egintzetarik 10,34.37-43

Petri Zezarerat etorri zen, ehuntari erromano baten etxerat. 34 Hunela mintzatu zen:

37 “Badakizue zer gertatu den Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanesek predikatu bataioaren ondotik: 38 Nazareteko Jesus, Jainkoak kontsekratu zuen Izpiritu Sainduaz, eta indarrez bete. Bazabilan ongia eginez, eta debruak bere meneko zauzkan guziak sendatuz, Jainkoa berekin baitzuen. 39 Eta gu, Apostoluak, harek Juduen lurraldean eta Jerusalemen egin dituen guzien lekuko gira. Hil dute zur batetik dilindan. 40 Bainan Jainkoak piztu du hirugarren egunean. 41 Eta eman dio agertzeko ahala, ez herri guziari, bainan Jainkoak aitzinetik hautatu lekukoeri, guri, hura hiletarik piztu ondoan, harekin jan eta edan duguneri. 42 Manatu dauku herriari predika diezogun, eta lekuko izan gaitezen hura dela Jainkoak bizien eta hilen juje ezarri duena. 43 Profeta guziek aitormen hau egiten dute hartaz: Haren baitan sinesten duten guziek haren bitartez bekatuen barkamendua ukaiten dutela.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 118 (117)

Leloa : Hau da eguna, Jaunarena, gaur piztu baita Jesus Jauna.

Jaunari kanta, ona baita,
Amodioa betiko baitu betikoa.
Jainkozaleek, gora kanta:

Amodioa betikoa du betikoa.
Jainko eskua, esku gaitza:
Jainko eskuak, esku azkarrak, zer laguntza.
Joan zait hiltzeko oren beltza:

Biziko naiz bai, Jaunak eginez nadin mintza.
Egilek utzi harri hori
Bilakatu da denak datxizkan ezkin-harri.
Jainko Jaunak du hau egina,
Gure begien, gure bihotzen miragarri.

Bigarren irakurgaia

(Kristo piztuarekin bizi)

Jondoni Paulok Koloziarreri 3,1-4

Haurideak, Kristorekin piztu zireztenaz geroz, bila-zkitzue gain hartako gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean jarria. Itzul zuen gogoan gain hartako gauzetarat, eta ez lurrekoetarat. Hilak zirezte, alabainan, eta zuen bizia Kristorekin gordea dago Jainkoaren baitan. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere, orduan, harekin agertuko zirezte, ospe betean.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Bazko Bildotsa Bazkoz hila, Kristo guretzat eskaini da. Egin dezagun denek besta Jaunaren baitan, **alleluia**.

Jesu Kristoren Ebanjelioa Jondoni Joaniren liburutik 20, 1-9

1 Astearen lehen egunean, Maria Madalena hilobirat joan zen goizean goizik, iluna zelarrik oraino, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. **2** Orduan, lasterka joan zen Zimun Petriren eta Jesusek maite zuen beste dizipuluarenganat. Eta erran zioten: “Jauna hilobitik ereman dute, eta ez dakigu non ezarri duten.” **3** Petri atera zen beraz, bai eta beste dizipulua, eta joan ziren hilobirat. **4** Biak elkarrekin lasterka zoatzen, bainan beste dizipulua Petri baino lasterrago zoan, eta lehenago heldu zen hilobirat **5** Ukurturik oihalak zabal-zabala ikusi zituen, bainan ez zen sartu. **6** Etorri zen ere Zimun Petri haren ondotik, eta hilobian sartu zen. Zabal-zabala ziren oihaleri so egin zioten, **7** bai eta Jesusek buru gainean izan zuen hil-oihalari ere; hau ez zen beste oihalekin batean zabal-zabala, bainan berex, biribilkaturik leku batean. **8** Orduan, sartu zen beste dizipulua ere, hilobirat lehen heldu zena. Ikusi eta sinetsi zuen. **9** Alabainan, ordu arte dizipuluek ez zuten konprenitu Liburu Sainduak diona, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.